

X. Lezo-jaizkibel mendi lasterketa araudia

1. DATA ETA LEKUA

X. Lezo-Jaizkibel mendi lasterketa, 2024ko otsailaren 25ean jokatuko da, 10:00etan hasita. Irteera eta helmuga Lezoko Gurutze Santuaren Plazan egongo dira.

2. IBILBIDEA

Jaizkibel mendian egingo da proba.

Ibilbideak 14 km-ko luzeran 771 m-ko desnibel positiboa du, eta 549 m-ko gehienezko altuera. Ibilbidea osatzeko denbora muga 3 ordukoa izango da.

Eguraldi txarrak eragindako alerta egoeraren bat emango balitz, antolakuntzak ibilbidean aldaketak egiteko edo lasterketa bertan behera uzteko eskumena izango du. Azken kasu honetan, lasterkarien poltsak banatuko lirateke, baina ez litzateke dirurik itzuliko.

3. IZEN-EMATEA

2024ko urtarrilaren 1etik aurrera. Internetez soilik egin daiteke, www.kirolprobak.com webgunean.

Gehienezko partaide kopurua: 350 korrikalari.

Izen-emateak 20 €ko kostua izango du mendian federatuentzat eta 22 €koa federatuta ez daudenentzat.

16 urtetik gorako korrikalariak eman dezakete izena. Lasterketa egunean adinez nagusi ez direnek gurasoen edo tutorearen baimena bete beharko dute dortsala jaso ahal izateko.

Dorsal guztiak agortutakoan itzarote-zerrendan izena emateko aukera irekiko da. Zerrenda hori erabiliko da baja emandako korrikalariak itzultako dortsalak eskaintzeko, izena emandako ordena kronologikoa errespetatuz.

4. DORTSALA ITZULTZEA edo IZENEZ ALDATZEA

Izen-ematea bertan behera uzteko bi modu daude:



Batetik, dortsala antolakuntzari itzuliz. Korrikalariak bere dirua bueltan jasoko du eta itxarote-zerrendako hurrengoari eskainiko zaio parte hartzeko aukera. **Garrantzitsua:** Azken astearen barruan jasotako baja eskaeretan ez da dirua bueltatuko.

Bestetik, dortsala izenez aldatuz. Horretarako, dortsala itzuliko duen korrikalariak antolakuntzari bere ordezkoren datuak helarazi behar dizkio.

Harremanetarako helbidea: lezotarraklt@gmail.com

5. DORTSAL BANAKETA

Dortsalak, lasterketa egunean bertan banatuko dira, 8:00etatik 9:30era bitartean, Lezoko Gurutze Santuaren plazan, udaletxeko arkupeetan. **Derrigorrezkoa izango da nortasun agiria aurkeztea.**

6. SEGURTASUNA

Antolakuntzak Ardura Zibileko eta Istripuko aseguruak izango ditu korrikalari bakoitzarentzat. DYaren laguntza ere izango du. Antolakuntza edo DYako kideren batek korrikalariren bat dagoen egoeragatik lasterketan jarraitzea bere osasunerako arriskutsua dela ikusi eta erretiratzea beharrezko ikusten badu, errespetatu egin beharko du. Ez badu hala egiten, antolakuntza ez da bere kargu egingo momentu horretatik aurrera gerta dakiokenaren aurrean.

Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei mediku-azterketa bat egitea gomendatzen die. Norberak bere gain hartu beharko du kirol jarduerak dakarren arriskua.

7. SEINALEZTAPENA

Ibilbidea, hornidura-guneak eta kilometroak behar bezala seinaleztatuta egongo dira, zinta eta kartel bidez. Bidegurutze gehienetan boluntarioak egongo dira, norabidea adierazteko.

8. KONTROLAK

Parte-hartzaile guztiek, dortsala bularrean eta ongi ikusteko moduan eraman beharko dute proba guztian zehar.

Proban zehar antolakuntzak kontrol guneak jarriko ditu eta bertatik igarotzea ezinbestekoa izango da.

Suebaki igoera (6. kilometroa) kronometratua izango da eta sailkapen berezia egingo da, gizonezko zein emakumezkoen kategorietan.

9. HORNIDURA-GUNEA

3 hornidura-gune egongo dira, 3, 7 eta 10. kilometroetan.

Bertan **ura ez da edalontzietan banatuko, norberak eramandako edalontzi/flask/botilak** betetzeko aukera egongo da. Produktu energetikoak, fruitu lehorrak, txokolatea



eta frutak egongo dira.
Gainera, helmugan ere janari-edariak egongo dira.
Derrigorrezkoa da hondakinak sailkatu eta dagokion edukiontzian botatzea.

10. SAILKAPENA

Sailkapena argitaratu ondoren, 30 minutu egongo dira edozein erreklamazio egiteko.
Denbora pasa eta gero, ofizialak egingo dira sailkapenak.

11. SARIAK

Gizonezko / Emakumezkoak

1. sailkatua: txapela, garaikurra, Lezoko produktuz hornituriko saskia.
2. sailkatua: garaikurra, Lezoko produktuz hornituriko saskia.
3. sailkatua: garaikurra, Lezoko produktuz hornituriko saskia.

Lezoko lehen gizonezko zein emakumezkoak:

- Garaikurra eta bi lagunentzako otordua

Suebaki igoera, emakumezko zein gizonezko azkarrenak:

- Garaikurra eta bi lagunentzako otordua

12. INGURUGIROA

Lasterketa Natura 2000 sarearen barne dagoen mendi inguruetatik igaroko da.
Ingurumena zaintzeko, hornidura-guneetatik kanpo zaborrak botatzea guztiz debekatuta dago. Helburu horretarako, hornitze guneetatik gertu zakarrentziak jarriko dira, 25 eta 50 metrora eta hondakinak sailkatu egin beharko dira.
Oinarrizko arau hau betetzen ez duten korrikalariak probatik kanporatuak izango dira.

Lasterketak [Etiketa Berdea](#) zigilua daukanez, bai antolakuntza aldetik, nola korrikalarien aldetik, berau izateak suposatzen duen arau etikoak betetzera konprometitzen gara.

13. DUTXAK eta KONTSIGNA

Kontsigna Goiko plazan (udaletxe atzean) egongo da.
Bekoerrotan kiroldegian dutxatzeko aukera egongo da (dortsala erakutsita).

14. ERANTZUKIZUNA

Lehiakideekiko errespetua: korrikalariaren batek min hartu duela ikusiz gero, derrigorrezkoa da berari laguntzen geratzea.

Antolakuntzak bere gain hartuko du ibilbidearen barruan gertatzen den edozein istripuren ardura, baina ez korrikalariaren istripua zabarkeriak eraginda gertatzen bada.
Parte-hartzaileen objektu pertsonalei dagokienean ere ez du ardurarik izango, helburu horrekin kontsigna-zerbitzu bat izango baita.



Parte-hartzaileek izango dute euren buruari edota hirugarren pertsoneri eragindako kalte ororen erantzukizuna.

15. IRUDI ESKUBIDEAK

Partaide guztiek lasterketaren inguruan egindako argazki edo hartutako irudiak askatasun osoz erabili eta argitaratzeko baimena ematen diote antolakuntzari, epe mugarik gabe.

16. ARAUDIAREN ONARPENA

Parte-hartzaile guztiek, parte hartzeagatik, araudi hau onartzen dute. Bertan agertzen ez dena EMF-FVM-ren araudia kontuan izanda erabakiko da.